



Beasainen Igunean banatuko dira bizilagun berriei

Sasieta mankomunitateak, mankomunitatea osatzen duten **sei udalerri handienetara** (Beasain, Zumarraga, Ordizia, Legazpi, Urretxu eta Lazkao) kanpotik etorritako bizilagun berriei **harrera** egiteko **informazio-orriak** prestatu ditu.

Informazio-orriak **bost hizkuntzatan** (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta arabiera) idatzita daude, etorri berriek zabor-bilketa zerbitzua behar bezala erabiltzeko informazio argia, laburra eta zuzena izan dezaten.

Informazio orrietan, herri bakoitzeko berezitasunak hartu dira kontutan, izan ere, antzeko zerbitzua jaso arren, herri batetik bestera desberdintasun ugari **baitaude**; edukiontzi grisa irekitzeko egutegian, traste zaharrak ateratzeko egutegian, edukiontziak irekitzeko sisteman (txartela, giltza...), pixoihalentzako edukiontziak, gertueneko garbigunea eta abar.

Informazio-orriak udaletxeko herritarren harrera bulegoan, Igunean, banatuko zaie bizilagun berriei **harrera** egiterako orduan, aurrez aurre

(herritarren arretarako bulegoetan), telefonoz, internet bidez...

Herritarrekin izaten den **lehen harremana funtsezkoa da beharbezalako integrazioa eta bizikidetza** errotzeko.

Informazio-orriak, Sasieta mankomunitateko web-orriko [“Ikusi eta Ikasi”](#) atalean edonoren eskura daude.